


Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org



HAUSNARTU egitasmoari hasiera atzo bertan eman geniola dirudi. Eta, dagoeneko V. edizioko lan irabazleak eta -saririk jaso ez arren- berezko meritua izan duten hainbat lan BAT aldizkariko irakurlearen eskura jartzeko aukera dugu. 2012ko laugarren zenbaki hau da, beraz, lehiaketa bere ibilbidea egiten ari denaren seinale.

Beste urteetan bezala, aurtengoan ere, lehen edizioan finkaturiko helburuak izan dira izpide lehiaketan. Oraindik gogoan dut duela bost urte Iñaki Martínez de Lunak eta biok ida-

tzi genuen orduko hitzaurrea: "...euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena duten ikerlariak eta oraindik euskararen eremura hurbildu ez direnak [ere] gonbidatu nahi ditugu, modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarriak zabaldu eta aberastuko baitira". Beraz, denbora tarte igaro ondoren, lehiaketa aurrerapausoak ematen ari dela ikasteko parada dugu.

Bosgarren edizio honetako lehen saria **Iñigo Fernandez Ostolazak** *Hizkuntza gutxi-tuen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan, euskararen kasua EAEn* lanarekin eskuratu du. Aipatzekoa da gai hau ez dela ohikoa gure soziolinguistika-esparruko lanetan. Lehiaketako epai-mahaiaren ikuspegitik oso interesgarria izan da egin duen bidea, izan ere, euskararen biziberritze-lanetan interesa duten subjektuak (adituak) bildu ditu beraien iritzi

eta esperientziak jasotzeko. Zertarako, honakoaz jabetzeko: komunikazioaren esparruan eta pertsuasioa landu nahi denean hizkuntza gutxitua erabiltzeak eta, bide batez, euskara erabiltzeak duen eragina. Izenburuan aipatzen deun moduan, EAEn egindako ikerketa da. Gure iritziz, etorkizuneko ekinbidea honakoa izango litzateke: antzeko emaitzak lortzen diren begiratzea Euskal Herriko gainerako lurraldeetan. Hau da, interesgarri izan daiteke begiratzea euskarak duen ospearean banaketa lurraldetasunari lotzen zaion, ofizialtasunaren banaketak zer pisu duen eta abar.

Ikerketaren emaitzek erakusten dute Euskal Autonomi Erkidegoan euskara erabiltzeak pertsuasioa areagotzen duela, neurri handi batean, edozein dela ere jardun alorra. Badi-rudi baieztapen horren arrazoia hartzailearengan euskarak sortzen duen irudiarekin duela lotura, hau da, euskaraz jasoz gero, iturria sinesgarriagoa zein gustagarriagoa bihurtzen zaio. Bestalde, ikusi ahal izan du euskararekiko jarrera positiboak agintzen duela hori horrela izan dadin, eta euskaraz jakiteak edo ez jakiteak ez duela horrenbesteko eraginik. Hala ere, gure ustez, emaitza horien sendotasuna alderatu beharko litzateke, nabarmenki beste ezaugarri soziolinguistiko desberdinak dituzte guneetan, zer gertatzen den ikusteko. Hau da, berdin balio al du emaitza horrek Nafarroan eta Iparraldean?

Xabier Bengoetxea Muxikak jaso du bigarren saria *Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa* lanarengatik. Ikergaia azken urteotan oso presente dagoena da, izan ere, bide ezberdinetatik eginiko lanek erakusten dute Euskal Herriko zonalde soziolinguistikoki euskaldunenetan kezkatzeko moduko bilakaera gertatzen ari dela, aurreikusi gabekoa, gainera: euskaldunen

ehunekoen jaitsiera, eta sakoneko aldaketa islatzen dituen ebidentziak. Beraz, lan honean zonalde oso euskaldunetako egoera deskribatu du egileak, bilakaeraren ildo nagusiak non aztertu behar diren seinalatuz, euskararen erabilera nondik higitzen ari den agerian jarriz, eta gertakizun horien arrazoi nagusiak zein diren ikusteko arreta-puntu nagusiak identifikatuz.

Gatozen orain *XX. mendeko euskal ideia soziolinguistikoaren genealogiarako Anton Ugarte Muñozen* lana aipatzera. Aurtengo hiru lan sarituak oso esparru desberdinetatik heldu diote soziolinguistika-ikergaiari. Eta, hala, Anton Ugartek *XX. mendeko euskaldunek nazioarteko soziolinguistikaren jomuga* non identifikatu zuten azaltzen du. Soziolinguistika Amerikako Estatu Batuetan sortu eta gero, Europan garatu zen sendo, eta garaiko euskalgintzan zebiltzanen artean nolako itzala izan zuen aztertzen saiatu da egilea. Ingurumaria horretan izen eta izan berezia aitortu behar zaio Federiko Krutwigi, izan ere, mende hasierako eta bukaerako euskalgintzaren zubigile izatea egokitu zitzaion.

BAT aldizkari monografiko honetako hurrengo artikuluek HAUSNARTU lehiaketan parte hartu duten beste hainbat lan dute oinarri, batzuk osorik argitaratuta, baina, gehie-

nak, luzera-kontuak tarteko, aldizkarirako espresuki moldatuak. Horien artean da *Euskaldun hazi Iruñean*. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintza eta komunitate aukerak lana, iazko edizioan irabazle izan zen **Paula Kasares** irakaslearen lana. Bere ikerketa Iruñean kokatu du egileak, Nafarroako hirigune erdaldundu batean, alegia. Euskara-gaitasun oso desberdineko gurasoak hartuta, haur euskaldunak dituzten familietan nolako hizkuntza elkarrekintzak gertatzen diren aztertu du. Ikerketak erakutsi du gurasoek euskararekin duten harremana ez dela finkoa, aldaezina. Egilearen hitzetan harreman hori prozesu bat da aurrebaldintza baino gehiago, eta seme-alaben hizkuntza ere sozializazioaren aldagai dinamikoa da.

Ondorengo lanak ere Nafarroan kokaturiko ikerketa bat du oinarri: *Lizarra, euskararen biziberritzetik indarberritzera*. **Alfredo Dufur Otheguyk** burutu du ikerketa Lizarrako 2012ko egoera soziolinguistikokoaren argazkiaren bila, ahulguneak eta indarguneak bilatuz, eta etorkizunerako erronkak proposatuz.

Nafarroatik Arabako Gasteizera egingo dugu salto **Iñaki Lazkano Lizundiak idatziriko** *Gasteiz eta euskara: Ibilbide historiko bat* izenburupeko lanarekin. Bertan, Gasteizen euskarak utzitako arrastoaren nolabaiteko mapa bat irudikatu du egileak. Gasteizek eta Euskarak elkarrekin duten historiaren ibilbide gidatua antolatzea zuen abiapuntua egitasmoak 2011ko Topaguneak -Euskara Elkartearen Federazioak- egindako eskaera bati erantzunez. Eta ibilbide horretako esparru desberdinak gai anitzetan kateatu ditu: filologia, historia, irakaskuntza, hezkuntza, gizarte mugimenduak, helduen alfabetatze eta euskalduntzea eta kultura (bertsolaritza, literatura eta musika). Egindako azterketaren emai-

tza laburbiltzen du lan honek, eta irakurlearen esku jartzen ditu Gasteizko euskal aztarnen arrastoak jarraitzeko zertzelada batzuk.

Azkenik, **Maxixatzen euskara kultur elkarrekin** *arnasguneen* ezaugarriak dituen Azkoitiko udalerrian euskararen egoera aztertu du *Euskararen hautematea Azkoitian XXI. mendean* lanean. Lanaren irakurketan zehar sumatzen den pertzepzio gazi-gozoaren arrazoi sakona aztertu nahi izan dutela egileek lan honen bitartez. Aitortzen dutenez, behin eta berriz entzun dute Urola aldea ingurune pribilegiatua dela euskararen gaitasuna eta erabilaren ikuspegitik. Baina han ere, gauzak ez direla uste bezain *arrosa kolorekoak* hauteman dute. Eta ikertzeari, galdetzeari, behatzeari, aztertzeari eta hausnartzeari ekin diote. Azkoitian euskaldunak eta ia-euskaldunak biztanleriaren %90 dira, baina indarguneak eta ahulguneak konparazioan jarrita orain arteko inertzia dinamika makaldu eta hiztun komunitatearen hainbat gabezi identifikatu dituzte.

Horrela heldu gara zenbaki honetako amaierara. Euskararen lurralde osoa hartzen duen gaitik abiatuz (euskarak pertsuasioan duen ahalmena, alegia), gune soziolinguistikoko desberdinetako kasuetako ikuspegi anitzak ekartzen ditu aldizkariak: Iruñea, Lizarra, Gasteiz, eta arnasgune modura izendatu ditugun udalerririk euskaldunak: Xabier Bengoetxeak aztertu dituen Asteasu, Berastegi, Amezketa eta Alegia (beste udalerririk batzuetako datuak ere erabilia) eta Azkoitia. Orotara, ikuspegi anitza eta zabala eskaintzeko moduan gaudela iruditzen zaigu. Izan dadila irakurlearentzat probetxugarri eta (hobeto) entretenigarri. •